


NOLA HARTU PARTE OOGetan.

Ordezkapen organo gorenean
parte hartzen duten gurasoentzako
gida praktikoa.

2018
edizioa



kaixo!

Zazpi urte igaro dira “Nola parte hartu eskola-kontseiluetan” gidaren azken ediziotik. 2018ko hauteskondeekin kointzidituz, gida praktiko honen edizio berri bat aurkezten dizuegu eskola kontseiluetan parte hartuz familiak ordezkatzeko dituzuen gurasoei.

EHIGEn oinarritzko helburua da familien parte hartzea sustatu eta laguntzea OOGtan. Familien parte-hartzeak, ikastetxeko gainontzeko kideekin batera, Euskal Eskola Publikoaren demokrazia dakar, baita gure seme-alaben eskola-arrakasta ere.

Horretarako, dokumentu motza eta irakurterraza aurkezten dizuegu, zuen ikastetxean modu eraginkorrean parte hartzen lagundu nahi dizuen, baita zuen ohiko zalantzak argitzen. Esan gabe utzi ditugun kontuak argitzeko zuen federazioen aholkularitza duzue eskura.

Ana Puente
EHIGeko presidentea.

OOG.....	2
OOGa.....	3
OOGaren osaketa.....	3
OOGaren eskumenak.....	4
Batzordeak: ohikoenak zeintzuk diren eta euren funtzionamendua..	4
OOGaren funtzionamendua.....	5
Bozketa nola egiten den.....	6
OOGaren aktak.....	6
Agintaldiak zenbat denbora irauten duen.....	7
Guraso Elkartea OOGan.....	7
Gomendioak.....	8
Erantzunak ohiko zalantzei.....	9
OOG-RAKO HAUTESKUNDEAK.....	11
Hauteskundeak noiz egiten diren.....	12
Hauteskunde-batzordea: osaketa eta eskumenak.....	12
Hautaketa-prozedura.....	12
Familien ordezkariak.....	13
Nork bozka dezakeen.....	13
Posta bidezko botoa.....	13
Bozketa eguna. Hauteskunde-mahaiaren osaketa.....	13
Bozketaren ondoren: azken fasea.....	14
Legeria.....	14

OOGa

OOGa.

Hezkuntza-komunitatea osatzen duten sektore ezberdinen partaidetza- eta Ordezkaritza-Organoren da. Espazio honetan familiek, irakasleek eta ikasleek parte hartu eta Euskal Eskola Publikoaren sareko edozein eskolatan eragina duten erabakiak hartzen dituzte.

OOGaren osaketa nahitaezkoa da funts publikoak dituen eskola orotan.

OOGaren osaketa.

OOGan hezkuntza-komunitatea osatzen duten kolektibo guztiak daude ordezkatuak: irakasleak, ikasleak, guraso zein tutoreak, kide bakarreko organoak (zuzendaria, ikasketaburua, idazkaria) eta abar.

Hala, OOGa, gutxienez, honako hauek osatuko dute:

- Zuzendaria, bertako presidente izango dena.
- Ikasketaburua.
- Klaustroak hautaturiko irakasle kopuru zehatza, partaide guztien herena baino txikiagoa izan ez daitekeena.
- Familiek hautaturiko guraso kopuru zehatza. Guraso Elkarteak zuzenean eta hauteskunde-prozesurik gabe izendatu ahalko du pertsona ordezkarik bat OOGaren partaide izan dadin.

•Ikasleek hautaturiko ikasle kopuru zehatza (soilik bigarren hezkuntzako ikastetxeetan).

•Udalaren ordezkarik bat.

•Irakasleak ez diren langileen ordezkarik bat.

•Ikastetxeko idazkaria, OOGaren idazkari arituko dena, hitzarekin, baina botorik gabe.

•Hezkuntza-arreta osagarriko langileen ordezkarik bat, hezkuntza bereziko unitateak dituzten ikastetxeetan.

Ikastetxe bakoitzeko Antolakuntza- eta Jarduera-Araudiak (AJA) zehaztuko du OOGa osatuko duten pertsonen kopurua eta guraso-, ikasle- eta irakasle-ordezkaritza kopuruak errespetatuko ditu, araudiari jarraiki.

Guraso- eta ikasle-ordezkaritzaren gutxieneko ehunekoak ikastetxeak ematen duen etaparen arabera izango da:

•Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza: familiek hautaturiko guraso kopurua OOGaren partaide guztien % 50 izango da.

Hezkuntza-etapa honetan ikasleek ez dute ordezkaritza.

•Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak: etapa honetatik aurrera, ikasleek ordezkaritza dute. Horrela, guraso kopurua murriztu egiten da eta ikasle kopurua, berriz, igo. Bi kolektibo horien batura OOGaren partaide guztien % 50 izango da.

“OOGaren osaketa nahitaezkoa da”

OOGaren eskumenak.

Ikastetxe bakoitzeko OOGak honako atribuzioak ditu:

- Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua (IHP), Ikasketa-Proiektua eta Hizkuntza-Proiektua onartu.
- Antolakuntza- eta Jarduera-Araudia (AJA) onartu.
- Ekonomia-Kudeaketarako Proiektua onartu.
- Ikastetxearen Bizikidetzeta-Plana onartu.
- Ikastetxearen Urteko Plana onartu. Plan horrek honakoak hartzen ditu bere barne:
 - Irakaskuntza-jardueren Programa.
 - Prestakuntza-Plana.
 - Eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien Programa.
 - Ekonomia-Kudeaketarako urteroko Programa.
- Ikastetxearen urteko memoria onartu.
- Material didaktikoak eta curricula garatzeko baliabideen kudeaketa-programaren antolakuntza- eta funtzionamendu-ildo nagusiak onartu.
- Bizikidetzeta arloko neurri zuzentzaileak ezagutu eta, hala badagokio, berrikusi, betiere, ikasleen eskubide eta betebeharrak zehazten dituzten arauak jarraiki.
- Ikastetxeko ikasleen onarpenari buruzko erabakiak hartu, betiere, indarrean dagoen legeriari estuki jarraiki.
- Beste ikastetxe batzuekiko harremanak sortu, helburu kultural eta hezitzaileekin.
- Eskolako instalazioen eta ekipamenduen zaharberritzea bultzatu, baita horien zaintza ere.
- Ikastetxeak administrazio- eta irakaskuntza-kontuetan duen jarduera orokorra ikuskatu.

•Ikastetxearen ordutegia eta egutegia onartu.

•Ikastetxearen zuzendaritza-proiektua balioztatuko duen batzordean parte hartzeko irakasle ez den OOGaren partaidea aukeratu(1)*.

•Ikastetxeko jangelako antolakuntza- eta funtzionamendu-ildo nagusiak onartu.

•Jangelako kudeaketa ekonomikoa kontrolatu eta bazkaltiarren ordainketen maiztasuna eta ordainketa-modua onartu.

OOGa osaturik, horrek pertsona bat aukeratu du, gizon eta andreen arteko zineztu berdintasun eraginkorra sustatuko duten neurri hezitzaileak bultzatu ditzan.

Ikastetxearen autonomia areagotzeko Proiektua garatuz gero, hori ere OOGak onartu beharko du.

Batzordeak: ohikoenak zeintzuk diren eta euren funtzionamendua.

Betebehar horiek betetzeko, OOGak hainbat batzorde era dezake (ikastetxe bakoitzaren AJAk zehazturikoak).

Ikastetxe guztietako OOGek nahitaez izan beharreko batzordeak honakoak dira:

- 1.- Batzorde Iraunkorra.
- 2.- Ekonomia-Batzordea.

Batzorde Iraunkorra

Honakoek osatuko dute: zuzendaria, ikaske-taburua, irakasle kopuru zehatza, guraso kopuru zehatza, ikasle kopuru zehatza (bigarren hezkuntzan) eta idazkaria (hitzarekin, baina botorik gabe).

Bere betebeharren artean honakoak daude: OOGaren bileren gai-zerrenda proposatu, AJA, Plana eta eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien memoria landu, OOGan onartuak izan daitezen(2)*.

(1) Abenduaren 5eko 262/2017 Dekretua, zuzendaria hautatzeko dekretua aldatzekoa (4. artikulua).

(2) 82/1986 Dekretua, EAEko ikastetxeen gobernu-organoen osaketa eta funtzioak arautzekoa

Ekonomia-Batzordea

Honakoek osatuko dute: zuzendaria, idazkaria (hitzarekin baina botorik gabe), ikasketaburua, irakasle kopuru zehatza, guraso kopuru zehatza eta, azkenik, udalaren ordezkaria.

Bere betebeharren artean honakoak daude: ikastetxearen urteroko kudeaketa-Programa eta urteroko balantzea landu eta ikuskatu.

OOGak parte hartzen duen Ikastetxe-Batzordeak ere daude. Horiek araudi ezberdinen araberakoak dira:

Material didaktikoak eta curriculuma garatzeko baliabideen Batzordea.

Honakoek osatuko dute: zuzendaria edo horrek eskuordeturiko inor, ikastetxeko idazkaria (Batzordearen idazkaritza izango dena), gurasoen bi ordezkari (bata OOGaren kidea eta horrek proposaturikoa eta bestea IGEak proposaturikoa) eta Lehen Hezkuntzako koordinatzaileak eta/edo DBHko koordinatzailea.

Bere betebeharren artean honakoak daude: OOGra ikastetxeak erabiliko dituen materialen proposamena (Koordinazio Pedagogikorako Batzordeak eginikoa) eraman, prozedura eta erosketa-puntuak proposatu, zerrendak ikuskatu eta araudia betetzen dela egiaztatu, familiei maila bakoitzeko ikasturte bakoitzean ikastetxeak erabiliko dituen material didaktikoak eta curriculuma garatzeko baliabideak jakinarazi.

Ikastetxearen funtzionamendua egokia izateko, behar adina batzorde era daiteke, adibidez:

Jangela-Batzordea

Honakoek osatuko dute: zuzendaria (Batzordeko presidente izango dena), jangela-arduraduna, ikasle kopuru zehatza (DBHko lehen ziklotik aurrera) eta jangela erabiltzen duten ikasleen gurasoak, OOGak adosturikoak. (Jangela partekatua bada, partekatzen duten ikastetxeetako zuzendariak hartuko dute parte.)

Bere betebeharren artean honakoak daude: jangelako aurrekontua egin, arduradunari administrazioan lagundu, OOGari menuak proposatu, jangela-zerbitzua ebaluatu eta OOGari hobekuntzak proposatu(3)*.

Batzordeetan harturiko erabaki guztiak OOGak berretsi beharko ditu. Era berean, Batzordearen betebeharren edo bertako edozein kide nahiz batzorderen zereginen gaineko informazio zehatza eskatu ahal izango du.

OOGan estamentu bakoitzak duen ordezkari-tza hartu beharko da kontuan Batzordeetako bozketetan. Erabakiak hartzeko gehiengoak beharko da, boto haztatua erabilita(4)*.

OOGaren funtzionamendua.

OOGaren bilerak bertako kide guztiak bertaratu ahal izango diren egun eta orduan egingo dira.

OOGa ohiko bilkuran nahiz bilkura berezian biltzen da.

Ohiko bilkura

Ohiko bilkura ikasturtean zehar nahitaez eta gutxienez bitan egingo da.

Dena dela, ikastetxean hartu beharreko erabaki askok OOGaren onespena behar duela kontuan harturik, gutxienez, behin bildu behar luke ikasturteko hiruhileko bakoitzeko.

Zuzendariak egingo du deialdia. Kideen herenak hala eskatuz gero, ikastetxeko zuzendariaren eskumena izango da OOGa osatzen duten pertsona guztiei deitzea.

Zuzendariak OOGaren kideei deialdiak bidaliko dizkie, gai-zerrendarekin eta eztabaidagai izango den dokumentazioarekin batera, eta, hala badagokio, gai-zerrendan sarturiko gaien onespena. Prozedura hori ez betetzeak akordioen aurkaratzea ekar dezake eta, beraz, horien deuseztasuna(5)*. Ikastetxe bakoitzaren AJAk zehaztuko ditu

(3) 2000ko martxoaren 22ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako nahitaezko irakasmailetak eta Haur Hezkuntzako (2. zikloa) jantokiak arautzekoa.

(4) Boto haztatua: bozketa-sistema honen bidez, botoa ematen duen pertsonak ordezkatzeko kolektiboko kide adina boto ordezkatu du. Sistema hau OOGan sorturiko batzordeetako bozketetan eta batzorde horietako bozketetako berdinketak erabakitzeko erabiltzen da. (5) Sektore Publikoko Araubide Juridikoko 40/2015 Legea. 19. 3 a) Artikulua.

OOGaren saioen deialdietarako epeak. (AJAn aldaketak egitea eskatu daiteke: deialdia noiz jaso, modu egokian parte hartu ahal izateko beharrezkoa den informazioa, eta abar).

Administrazio-prozedurak dio astebeteko baino epe motzagoa izan daitekeela, baina luzatzea gomendagarria dela uste dugu, jasotako dokumentazioa aztertzeke behar adina denbora izateko eta eztabaida egoki egiteko (6)*.

Bilkura berezia.

OOGak **bilkura berezia** egingo du, presako gairen bat izanez gero. Kasu horretan, gai-zerrendan soilik presako gaia(k) sartuko d(ir)a.

Deialdiak, ohiko bilkurarako nahiz bilkura berezirako, ikastetxeko zuzendariak egingo ditu, edo kideetako herenak hala eskatuz gero, gutxienez 48 ordu lehenago, betiere, kide guztiak jakitun direla eta bertaratuko direla ziurtaturik.

Quoruma izateko, zuzendaria, idazkaria (edo euren ordezkariak) eta OOGa osatzen duten kideen erdia da beharrezkoa.

Bozketa nola egiten den.

OOGak gehiengo soil ez lortuko ditu akordioak, hau da, bozkatzean bertan zeuden pertsonetatik gehienek bozkatutako aukera.

Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektua, Urteko Plana eta AJA eta beraren moldaketak gehiengo osoz onartu behar dira. Hau da, gutxienez, OOGa osatzen duten **kide guztien** erdia gehi bat.

Ikastetxearen egutegiaren kasuan, gehiengo soil ez onartuko da, betiere, garrantziko aldaketarik jasaten ez bada.

Ordu-tegi-aldaketaren kasuan, proposamena irakasleei, ikasleei eta gurasoei egin behar zaie kontsulta eta sektore horiek guztiak onartu behar dute, emandako botoen

2/3eko gehiengo kalifikatuz eta, gutxienez, eroldaren % 50eko parte-hartzearekin. Proposamena OOGaren gehiengo osoz onartu behar da eta hurrengo ikasturterako matrikulazio-epea baino lehen (salbuespena: irakasleen formakuntzarako baldin bada arratsaldea).

Presidentearen botoa erabakigarria izango da berdinketa kasuan.

Bakarrik gai-zerrendan ageri diren puntuak eztabaida eta ados daitezke, OOGa osatzen duten kide guztiak bertaratutako direnean eta gehiengoak gai bat presakoa dela erabaki duenean salbu.

Uneren baten inork zalantzarik izanez gero eta ideiarekin bat argitu behar bada, edozein estamentuk eska dezake etenaldia.

Gehiengoak adosturikoarekin ados ez dagoen orok idatzizko boto partikularra eman ahal izango du, baita botoaren zentzua eta zioak azaldu ere, bi eguneko epean, onartutako testura eransteko (7)*.

OOGan ez dago boto-ordezkatzerik. AJAn jasotzen bada, posible da botoa ordezkatzeko.

OOGaren aktak. Nola idatzi?

OOGaren idazkaria izango da saio bakoitzeko akta jasotzeko arduraduna. Akta horretan bertaraturikoen zerrenda (izen-deiturekin), OOGan duten kargua eta bilera egin den lekua eta unea (urtea, hilabetea, eguna eta ordua) azalduko dira.

Eztabaidako puntu nagusiak, bozketen emaitza eta bozketak egiteko modua (publikoki ala sekretuki, txartel bidez ala eskua altxatuta) ere agertuko dira aktan.

Azkenik, garrantzitsuenak, **adosturiko akordioen edukia agertuko da.**

Era berean, kide orok beraren hitzartzearen transkripzio osoa eskatzeko eskubidea du

(6) Ohiko bilkuretarako astebeteko baino epe motzagoa ezarri ahal izango da, baina beti egin izan da astebeteko epean eta, gure ustez, 48 ordu ez da nahikoa gurasoek eztabaidatuko den dokumentazioa irakurri ahal izateko, adibidez, Urteko Plana.

(7) Sektore Publikoko Araubide Juridikoko 40/2015 Legea. 19. 3 c) Artikulua.

eta hala jasoko da aktan edo kopia atxikiriko da bertan.

Gehiengoak adosturikoarekin ados ez dagoen orok idatzizko boto partikularra eman ahal izango du, bi eguneko epean, onarturiko testura eransteko.

Aktak idazkariak sinatu beharko ditu, presidentearen oniritzia jasota, eta, kide anitzeko organoari bidali. Adosturiko akordioen kopia eskatu ahal izango da^{(8)*}

Akta guztiak OOGan bertan edo hurrengoan onartu beharko dira.

Agintaldiak zenbat denbora irauten duen eta plaza hutsak nola betetzen diren.

Ordezkaritza Organo Gorena osatzen duten pertsonak lau urteko aldirako izango dira hautatuak. Bi urtean behin ordezkariek elkargokideen erdia berrituko da; horretarako, ohiko hauteskunde-prozesua abiatuko da.

Dagokien berritzea baino lehen OOGaren partaide izateko baldintzak betetzen ez dituzten ordezkariek hutsik utziko dute kargua. Hutsune hori hauteskunde-zerrendan boto gehien lortu duen hurrengo hautagaiak beteko du.

Plaza hutsa betetzeko hautagairik ez balego, hutsik geratuko litzateke, OOGaren hurrengo berritze partzialera arte. **Horregatik, komenigarria da IGEek, hauteskunde-zerrendak egitean, berri beharreko plazak baino hautagai gehiago aurkeztea.**

IGEak izendaturiko pertsonak bere agintaldia amaitu baino lehen kargua utziko balu, IGEak horren ordezkoa izendatuko du. Izendapena bi hilabetean egiten ez bada, plaza huts hori azken hauteskundeetako ordezkoen zerrendan lehena dagoenak beteko du.

Agintaldiak zenbat denbora irauten duen eta plaza hutsak nola betetzen diren.

Ordezkaritza Organo Gorena osatzen duten

pertsonak lau urteko aldirako izango dira hautatuak. Bi urtean behin ordezkariek elkargokideen erdia berrituko da; horretarako, ohiko hauteskunde-prozesua abiatuko da.

Dagokien berritzea baino lehen OOGaren partaide izateko baldintzak betetzen ez dituzten ordezkariek hutsik utziko dute kargua. Hutsune hori hauteskunde-zerrendan boto gehien lortu duen hurrengo hautagaiak beteko du.

Plaza hutsa betetzeko hautagairik ez balego, hutsik geratuko litzateke, OOGaren hurrengo berritze partzialera arte. **Horregatik, komenigarria da IGEek, hauteskunde-zerrendak egitean, berri beharreko plazak baino hautagai gehiago aurkeztea.**

IGEak izendaturiko pertsonak bere agintaldia amaitu baino lehen kargua utziko balu, IGEak horren ordezkoa izendatuko du. Izendapena bi hilabetean egiten ez bada, plaza huts hori azken hauteskundeetako ordezkoen zerrendan lehena dagoenak beteko du.

Gurasoen Elkarte OOGan.

Guraso Elkarteak pertsona ordezkarik bat zuzenean izenda dezake **OOGaren partaide, hauteskunde-prozesurik gabe**, ahots eta botoarekin, ikastetxeko zuzendariari haren izena aurretiaz jakinarazita, **hautagaitzak aurkezteko epea hasi baino lehen**. Halako izendapenik izan ezean, bere plaza ohiko hauteskunde-prozesuaren bidez beteko da.

Ordezkaritza Organo Goreneko gurasoek beraien ekintzak koordinatzea gomendagarria da.

OOGaren aurretik IGEarekin bilera egitea gomendagarria da, Elkarteak ikastetxearen funtzionamendua hobetzeko garrantzizkotzat dituen gaiak planteatzeko.

Elkartea eta OOGa koordinatzeko pertsona izendatzea komeni da. Horretarako irizpidea IGEak OOGaren ordezkariek izateko zuzenean izendaturiko gurasoak funtzio hori betetzeko izan liteke.

(8) Sektore Publikoko Araubide Juridikoko 40/2015 Legea. 18. 2 Artikulua

Ordezkaritza Organo Gorenean gurasoen ordezkariak izaera kolektiboko nahiz indibidualen gaiak planteatuko dituzte, ikastetxe-ko familia guztien ordezkariak bere gain dutelako. Inola ere ez da norberaren interesik bultzatuko.

IGEak, behar balitz, Ikastetxearen funtzionamendu egokian eragina duten kontuen berri emango dio OOGari. Are, garrantzitsuztat jotako edozein gairi buruzko txostenak egin ahalko ditu, adibidez, instalazioen berrikuntzari zein jarduera osagarriari eta eskolaz kanpoko jarduerari buruzkoak.

“Guraso Elkarteak pertsona ordezkari bat zuzenean izenda dezake”

Gomendioak

Bileraren aurretik:

- Gai-zerrenda eta adostu edo eztabaidatu beharreko dokumentazioa ezagutu.
- OOGeko ordezkarien eta IGEaren batzordearen arteko bilera planifikatu, gai-zerrenda eta dokumentazioa edota OOGrako nahiz bertako batzordeetarako estrategiak aztertzeke.
- Egin litezkeen proposamenak prestatu eta, behar balitz, horretarako aholkularitza bilatu.

Bileran bertan:

- Iritziak argi eta motzean azaldu, beti gure proposamenak laguntzeko dokumentazioa aurkezturik.
- Presidenteari bozketa-proposamenak era argian egiteko eskatu.
- Argi ikusten ez dugun zerbait bozkatzea proposatzen bada edo legezkoa ez dela uste badugu, izan gogoan aurkako botoek zein abstentzioek, betiere, aktan jasota badaude,

sor litezkeen arduetatik salbuetsi egiten gaituztela (9)*

- Gure zioak arrazoitzeko, boto partikularra eska dezakegu 48 orduko epean.
- Es sartu polemika antzuetan, ezta norbanakoen arteko liskarretan.
- Erabakiren bat hartzeko denbora luzeagoa behar izanez gero, etenaldia eska dezakegu bileran.

Bilera ondoren:

- Elkartearen Batzordea eta ikastetxeko familiak informatzeko, adosturiko akordioak idatzi.
- Bilera eta horren emaitzak kolektiboki balioztatu.
- Beharrezkoa balitz, eginiko ekarpenak eta adosturiko akordioak jasota dituen aktaren ziurtagiria eskatu.

(9) Sektore Publikoko Araubide Juridikoko 40/2015 Legea. 17. 6 Artikulua.

Hainbat erantzun ohiko zalantzei.

Erabaki garrantzitsuak bakarrik irakasleen Klaustroan hartzen al dira?

Ez, jakina. OOGari dagokio ikastetxearen bizitzaren konturik garrantzitsuenak erabakitzea. Horregatik, familiak hezkuntzan inplikatzea, parte hartzea eta beraien seme-alaben hezkuntza hobetzeko adosturiko proposamenak aurkeztea garrantzitsua da.

OOGak soilik bi batzorde izan behar du?

Ez, egokitzat jo adina batzorde era daiteke.

Zer jaso behar da OOGaren aktan?

Saio bakoitzeko akta jasoko da. Bertan bilerara bertaraturikoen izenak, lekua eta iraupena agertuko dira. Era berean, erabakia-
ren puntu nagusiak, bozketa-modua eta horien emaitza, akordioetako edukiak eta, izatekotan, boto partikularrak jasoko dira.

Izan al daiteke boto partikularrik?

OOGaren edozein partaidek eskatu ahalko du adosturiko akordioari buruzko bere botoaren azalpena eta berau zurituko duen zioa aktan jasotzeko.

Zer da boto haztatua?

Boto haztatuak batzordeko pertsonen pisua OOGan duten bera izatea dakar. Batzorde guztietan erabiltzen da boto haztatua.

Presidentetza bertaratu ezin bada, nork beteko du kargua?

Presidentea edo idazkaria bertaratu ezin ezean, kargu zaharrenak ordezkatzeko du presidentea eta gazteenak idazkaria. Partaide guztiek antzinatasun bera izanez gero, pertsonarik adinekoena edo gazteena izango da.

Eta, quorumik ez bada?

Quoruma izateko, zuzendaria, idazkaria (edo euren ordezkariak) eta OOGa osatzen duten kideen erdia da beharrezkoa. Quorumik izan ezean, OOGa bigarren deialdian eratuko da,

lehen deialdia baino 24 ordu geroago. Horretarako, nahikoa izango da partaideen herena bertaratzeko eta, ezinbestean, hiru baino gutxiago ez izatea.

Nork erabakiko du bozketa, berdinketa kasuan?

Berdinketa kasuan, OOGaren presidentetzaren botoa izango da erabakigarria.

Zer gertatuko da familiak gutxiengo badira?

Erabakiak berdin-berdin har daitezke, nahiz gurasook ordezkariarik ez izan.

Ikastetxeko plana eta memoria nahitaez onartu behar dira?

Hain zuzen ere, ikastetxe orok plana eta memoria izan behar du. Ados egon ezean, ez da zertan egiten den lehen OOGan onartu.

Ideiak argitzeko edo gurasoen arteko erabaki adostua hartzeko etenaldia eska al daiteke?

Bai, jakina. Uneren baten inork zalantzarik izanez gero eta ideiarenekin bat argitu behar bada, edozein estamentuk eska dezake etenaldia.

Nola onartuko dugu ikastetxeko plana, ezaguna ez badugu?

Zuzendariak OOGaren partaideei eztabaidagai izango den dokumentazioa bidali beharko die, aurretiaz eta partaideek jasotzeko moduan.

Nola egin proposamenak OOGan?

Batzorde Iraunkorraren bitartez edo OOGaren Presidenteari bidalita, horrek gai-zerrendan txerta dezan.

Kontu pertsonalak planteatu al daitezke OOGan?

OOGak ez dira gurasoen ordezkariak kontu pertsonalak planteatzeko, baizik eta izaera kolektibo zein indibidualeko interesak babesteko eta ikastetxeko familia guztien ordezkariak gainean hartzeko.

OOGaren bilerak eskola-ordutegian egin behar dira?

Ez, bilerak OOGa osatzen duten kide guztiak bertaratzea erraztuko duen ordutegian egin behar dira.

OOGaren akordioak aurkara al daitezke?

Bai, betiere, honako egoera hauetako batean: Legez kontrakoak badira, OOGaren beraren araudiaren aurkakoak badira, hezkunza-araudiaren kontrakoak badira edo bertan parte hartzen duten pertsonen nahiz ordezkatzan duten kolektiboaren interes eta eskubideen aurka eginez gero.

OOGaren partaideek ezin dute akordiorik aurkaratu.*

**Kide anitzeko organoaren partaideek euren ardura salbuetsi dezakete kontrako botoa edo abstentzioa aktan jasota.*

OOGaren aktak familiei banatu daitezke?

Ez. Hartutako erabakiei buruko informazioa eman daiteke baina ezin dira banatu aktak.

Postaz bozka al daiteke OOGan?

Ez, parte-hartzearen aurkako kontraesana litzateke.

Zein da jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren arteko aldea?

Jarduera **osagarriak** ikasleekin irakas-orduetan egiten diren jarduerak dira, ikastetxeak antolaturikoak eta ikasle guztientzat nahitaezkoak: gelaz kanpoko jarduerak, barnetegiak, heziketa-kanpaina bereziak...

Eskolaz kanpokoak curriculumarekin zuzenean zerikusirik ez dutenak dira, irakas-orduetatik kanpo egiten direnak eta partaidetza boluntarioa dutenak.

“Bilerak OOGa osatzen duten kide guztiak bertaratzea erraztuko duen ordutegian egin behar dira”

OOG-rako HAUTESKUN- DEAK

Azaroaren 12ko 258/1996 Dekretuak, urtarrilaren 30eko 11/2007 Dekretuak moldaturikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako Ordezkaritza Organo Gorena hautatzeko eta berritzeko prozedura arautzen du.

Hauteskundeak noiz egiten diren.

Aipatu dekretuen arabera, OOGaren erdia bi urtean behin berritu behar da.

OOGaren kideen hautaketa dagokion ikasturtearen lehen hiruhilekoan egingo da, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak finkatu epean.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian Agindua argitaratu eta gehienez zazpi egunera ikastetxe orotan **Hauteskunde-Batzordea eratuko da.**

Hauteskunde-Batzordea: osaketa eta eskumenak.

Hauteskunde-Batzordea zuzendariak (presidente izango dena) eta aipatu gobernu-organorako ordezkariarik hautatu behar duen eskola komunitateko sektore bakoitzeko kide batek (zozketa bidez hautatuak) osatuko dute. Era berean, sektore bakoitzeko ordezkokidea aukeratuko da.

Honako hauek dira beraren eskumenak:

- Ikastetxea dagoen udalerriko udalari OOGrako beraren ordezkariak izendatzeko eskatu, baita ikastetxearen OOGan ordezkariarik izateko eskubidea duen beste edozein erakunde publiko zein pribaturi ere.

- Hauteskunde-prozesuaren hainbat ekitaldiaren data zehatza finkatu, ahalik eta jende gehienek parte har dezan.

- Hautaketa-prozedurarako arauak behar bezala ezagutarazi.

- Hauteskunde-mahaia eratzea sustatu. Mahai horiek bozketen buru izango dira, ordenari eutsiko diote, sufragioaren garbitasuna zaindu eta zenbaketa egin.

- Hauteskunde-prozesuaren ekitaldiak ordenatu: hautagaiak onartu, hautesle-zerrendak egin, hautagai-zerrendak publikatu, erreklamazio- eta ebazpen-epeak publikatu.

Hautaketa-prozedura.

Dagokion sektoreko edozein kideri eman ahal izango zaio botoa, betiere, hautagai izendatua izan bada.

Eskola komunitatearen sektoreen ordezkarien hautaketan, hautesle bakoitzak, gehienez, beraren sektoreari aukeratzea dagokion ordezkari kopuruaren bi heren adina izen jarriko du bozketa-txartelean.

Bi heren horiek zatikizko zenbaki izatekotan, bere azpiko segidako osoko zenbakia hartuko da kontuan. Pertsona ordezkari bakarra aukeratzekotan, hautesle bakoitzak beraren bozketa-txartelean izen bakarra jarri beharko du.

Ikastetxe bakoitzak beraren bozketa-txartelak egingo ditu, Hauteskunde-Batzordeak ikuskaturik.

Bozketa-txartelek behin betiko hautagai-zerrendako pertsonak alfabetikoki ordenaturik izan beharko ditu.

Eskola komunitatearen sektore baten hautagai kopurua sektore horrek berak prozesu honetan aukeratu beharreko ordezkari kopuru bera edo txikiagoa izatekotan, **ez da hauteskunde-prozesurik egin beharko** eta hautagai guztiak zuzenean izango dira izendatuak, betiere, zein hautagai izango den lau urterako eta zein bi urterako zehaztu beharrik ez bada.

Inork hautagai izan nahi badu, bakarrik sektore baten izenean izan ahal da. Hots, ikastetxe berean hainbat sektoretako kide denak soilik sektore bati dagokion hautagaitza aurkeztu ahal izango du.

Bozketak zuzeneko sufragio sekretu bidez egingo dira.

Hautagai batek bere burua elkarte, erakunde edo talderen baten izenean aurkeztu badu, egoera hori jakinarazi beharko da hautagaiak aldarrikatzean.

Familien ordezkariak.

Gurasoen edo tutoreen ordezkariak hautatzekoan, hautesle eta hautagarri izango dira Hauteskunde-Batzordeak hautagai gisa aldarrikatu ikastetxeko ikasleen guraso edo lege-ordezkarri guztiak.

Legez eraturiko eta Elkarteen Erregistroan izena emandako IGEek euren hautagaitza aurkeztu ahal izango dute eta hala jakinarazi beharko da hautagaiak aldarrikatzean.

Nork bozka dezakeen.

Zuzendariak Hauteskunde-Batzordeak ezarritako datarako deituko ditu ikasleen gurasoak edo lege-ordezkarriak hauteskunde-ekitaldira.

Hautatzeko eta hautatua izateko eskubidea dute, berdin-berdin, amak eta aitak. Biek batera egikari ahal izango dute eskubide hori eta, beraz, batek egikaritzeak ez du bestek ezin egikaritzea ekarriko.

Dena dela, guraso-ahala gurasoetako bati emana bazaio, soilik horrek izango du hautatzeko eta hautatua izateko eskubidea.

Gurasoen edo tutoreen hautaketa egitean, hautesleek nortasun agiria erakutsi beharko dute.

Dagokion sektoreko edozein kideri eman ahal izango zaio botoa, betiere, hautagai aldarrikatua izan bada.

Posta bidezko botoa.

Hezkuntza-komunitateko sektore guztien parte-hartze handiena lortzearren, hautesleek **posta bidezko botoa** eman ahal izango dute. Boto horrek hauteskundeak egin beharreko eguna baino bat lehenago egon beharko du Hauteskunde-Batzordearen esku.

Gutun bidez, mezularitza-zerbitzu bidez edo zuzenean ikastetxean emanik (beste pertsona batek edo seme-alabek), honako dokumentu hauek helaraziko zaizkio Hauteskunde-Batzordearen presidenteari:

- Hautesleak sinaturiko eskaria, posta bidez botoa emateko eskubidea eskatzekoa. Bertan beraren izena, deiturak, nortasun agiriaren edo beste agiri baliokideren baten zenbakia eta hezkuntza-komunitateko zein sektoretakoa den ageriko dira.
- Nortasun agiriaren edo beste agiri baliokideren baten fotokopia.
- Gutun-azalak itxita egon beharko du, botoa emateko txartela behar bezala beterik duela.

Bozketa-eguna. Hauteskunde-mahaiaren osaketa.

Hauteskunde-egunean hauteskunde-mahaia eratuko da eta honakoek osatuko dute: Ikastetxeko zuzendaria (presidente izango dena) eta zozketa bidez aukeraturiko bi guraso edo tutore (gazteena idazkari izango da).

Ordezko kideak ere aukeratu dira eta, ez batzuk, ez besteak bertaratuko ez balira, zuzendariak eta zozketa bidez aukeraturiko bi irakasleek osatuko lukete mahaia. Bi irakasle horiek ezin izango dira irakasleen ordezkariak hautatzeko hauteskunde-mahian daudenak izan.

“Hezkuntza-komunitateko sektore guztien parte-hartze handiena lortzearren, hautesleek posta bidezko botoa eman ahal izango dute”

Guraso eta tutoreak ikuskatzaile ibili ahal izango dira, gutxienez 10 hauteslek babesturik edo IGE batek proposatuta.

Ikastetxe bakoitzak beraren aktak eta bozketa-txartelak egingo ditu, Hauteskunde-Batzordeak ikuskaturik.

Bozketaren ondoren: azken fasea.

Hauteskunde-ekitaldi bakoitzean, bozketa amaitzean, mahaiak botoak zenbatuko ditu. Botoak publikoki zenbaturik, mahaiko kide guztiek sinaturiko akta idatziko da eta Hauteskunde-Batzordeari igorriko zaio.

Etorkizunean hutsik gera litezkeen plazak betetzeko, botoak jaso dituzten guztien izenak eta horiek lorturiko boto kopurua jasoko da aktan, boto kopuruaren arabera

ordenaturik. Berdinketa izatekotan, alfabetikoki ordenatuko dira.

Aktan, lorturiko emaitzekin batera, gerta litezkeen edonolako alegazio eta oharrak jasoko dira. Kasu horretan, erreklamazio-egileak ere sinatuko du akta.

Era berean, hautagaiak aldarrikatzean agertu diren elkarte, erakunde edo taldeak ere jasoko dira aktan.

Hautaturiko pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu eta, **gehienez bost eguneko epean**, zuzendariak **ikastetxeko Ordezkaritza Organo Goren berria eratuko du**.

Hezkuntza-Komunitatearen sektoreetakoren batek, bere erruz, dagozkion ordezkariak ez hautatzeak ez du Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenaren eraketa eragotziko.

“Etorkizunean hutsik gera litezkeen plazak betetzeko, botoak jaso dituzten guztien izenak eta horiek lorturiko boto kopurua jasoko da aktan”

Legeria

- Apirilaren 15eko 82/1986 Dekretua, OOGen osaketa eta funtzioak arautzekoa.
- Otsailaren 19ko 1/1993 Legea, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.
- Azaroaren 12ko 258/1996 Dekretua, ikastetxe publikoetako OOGa hautatzeko eta zatika berritzeko prozedura arautzekoa (EHAA 1996-11-15).
- Urtarrilaren 30eko 11/2007 Dekretua, ikastetxe publikoetako OOGa hautatzeko eta zatika berritzeko prozedura arautzeko Dekretua moldatzeko (EHAA 2007-02-05).
- Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretua, ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa (EHAA 2008-12-16).
- Irailaren 7ko 228/2010 Dekretua, ikastetxe publikoetako OOGan gurasoen ordezkariak izan beharreko gutxieneko ehunekoak arautzeko Dekretua moldatzeko (EHAA 2010-09-27).
- Urriaren 2ko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa.



EHIGE
ehige.eus

BAIKARA
baikara.eus

BIGE
bige.eus

DENON ESKOLA
denoneskola.eus

ESKOLA TXIKIAK
eskolatxikiak.eus

CÓMO PARTICIPAR EN LOS OMR.

Guía práctica para madres y padres que participan en los órganos máximos de representación.

edición
2018



kaixo!

Han pasado ya siete años desde la última edición de “Cómo participar en los consejos escolares”. Coincidiendo con las elecciones a OMR de 2018, os presentamos una nueva edición de esta guía que tiene como objetivo ofrecer información útil a todas las madres y padres que participáis y representáis a las familias en los consejos escolares.

Fomentar y acompañar la participación de las familias en los OMR es un objetivo primordial para EHIGE. La participación de las familias junto al resto de la comunidad educativa redonda en la democracia de la Escuela Pública Vasca, así como en el éxito escolar de nuestras hijas e hijos.

Es por ello que os presentamos este documento breve y sencillo, una herramienta práctica que quiere ayudaros a participar de forma efectiva en vuestros centros educativos y a resolver vuestras dudas más frecuentes.

Seguro que nos hemos dejado temas en el tintero. Para aclarar esas dudas contáis con el asesoramiento de vuestras federaciones.

Ana Puente
Presidenta de EHIGE

ÍNDICE

OMR.....	2
El OMR.....	3
Composición del OMR.....	3
Competencias del OMR.....	4
Comisiones: cuáles son las más frecuentes y cómo funcionan.....	4
Funcionamiento del OMR.....	5
Cómo se lleva a cabo una votación.....	6
Las actas del OMR.....	7
Cuánto tiempo dura el mandato.....	7
La Asociación de padres y madres en el OMR.....	7
Recomendaciones.....	8
Respuestas a las dudas más comunes.....	9
ELECCIONES A OMR.....	11
Cuándo se realizan las elecciones.....	12
La junta electoral: composición y competencias.....	12
Procedimiento de elección.....	12
Representantes de las familias.....	13
Quiénes pueden votar.....	13
El voto por correo.....	13
El día de la votación. Formación de la mesa electoral.....	14
Después de las votaciones: fase final.....	14
Legislación.....	14

OMR

El OMR.

Es el Órgano Máximo de Representación y participación de los diferentes sectores que forman la comunidad educativa. Es en este espacio donde las familias, el profesorado y el alumnado participan y toman las decisiones que afectan a la vida de cualquier centro escolar de la red de la Escuela Pública Vasca.

La constitución del OMR es obligatoria en todos los centros educativos sostenidos con fondos públicos.

Composición del OMR.

En el OMR están representados todos los colectivos que forman la comunidad educativa: claustro de profesores y profesoras, alumnado, colectivo de madres, padres o tutores y tutoras, órganos unipersonales (la directora o el director, jefe o jefa de estudios, secretario o secretaria) etc.

Así, el Órgano Máximo de Representación estará compuesto, al menos, por:

- La directora o el director, que será su presidenta o presidente.
- El jefe o jefa de estudios.
- Un número determinado de profesoras y profesores elegidos por el claustro, que no podrá ser inferior a un tercio del total de los componentes.
- Un número determinado de madres o padres, elegidos por las familias. La Asociación de madres y padres podrá designar directamente y sin someterse al proceso electoral a una persona representante como miembro nato del OMR.

- Un número determinado de alumnas y alumnos, elegidos por el alumnado (sólo en los centros que imparten secundaria).

- Un o una representante del Ayuntamiento.

- Una persona que represente al personal no docente

- El secretario o secretaria del centro, que actuará como secretario del OMR, con voz pero sin voto.

- Una o un representante del personal de atención educativa complementaria en los centros que tengan unidades de educación especial.

El Reglamento de Organización y Funcionamiento (ROF) de cada centro educativo determinará el número total de las personas que componen el OMR y respetará los porcentajes de representación de las madres y padres, alumnado y profesorado, de acuerdo a la normativa.

Los porcentajes mínimos que representan la participación de los padres/madres y alumnado varían en función de la etapa que imparta el centro educativo:

- Centros de Infantil y Primaria: el número de padres y madres elegidos por las familias representará el 50% del total de componentes del OMR. En esta etapa educativa el alumnado no tiene representación.

- Centros de Educación Secundaria: a partir de esta etapa el alumnado sí tiene representación, de tal forma que el número de padres/-madres disminuye en la misma proporción que aumenta la representación del alumnado. La suma de representantes de ambos colectivos representará el 50% del total de componentes del OMR.

